



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_1013/21_05

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen Aurreproiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan abenduaren 14an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lege Aholkularitzak bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, *xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua*, eta *Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua* oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila eta euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena abenduaren 14koa da eta baita abenduaren 14koa ere Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.



Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Dekretu Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela *abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua*. Artikulu hori jarraiki, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Lege Aurreproiektuaren edukari dagokionez, hizkuntza ofizialei buruzko aipamenik jasotzen ez bada ere, hizkuntzen erabilera eskatzen duten hainbat gai jasotzen dira xedapenaren hainbat artikuluetako edukietan.

Euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna, helburu biak Euskal Sektore Publikoko erakundeen politika publikoen zehar-lerroak izanik, interesgarria iruditzen zaigu bataren eta bestearen tratamendua alderatzea.

Hori horrela, aztertzen ari garen Lege Aurreproiektuan genero berdintasunari buruzko ezarpen batzuk aurkitu ditugu; aldiz, euskara, zein hizkuntza normalizazioa, ez dira aipatu ere egiten.

Xedapenaren 2. artikuluan, printzipioei buruzkoan, honela dio:

2. artikulua.- Printzipioak

1. Lege hau printzipio hauetan oinarrituta dago:

- j) Partaidetza publikoa, informazioa eta hezkuntza trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren prozesuarekin lotuta.***

k) Generoen arteko ekitatea eta gazte ikuspegia trantsizio energetikoko eta klima aldaketako politika eta jarduketetan.

Eta, ondoren, 4. artikuluan:

4. artikulua. Eskumenak eta funtzioak

3. Lege honetan esleitutako eskumenak eta funtzioak euskal administrazio publikoek egikaritutako dituzte koordinazio, lankidetzaz, erantzunkidetasun, eraginkortasun eta gardentasun printzipioekin bat.

4. Euskal administrazio publikoek bermatuko dute Lege honetan aurreikusitako askotariko gobernantza organoak osatuko dituzten kideen artean emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua egongo dela, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoarekin bat.

Printzipio, eskumen eta funtzio horien artean euskararen sustapena eta herritarren hizkuntza eskubideen bermea eta zabalkundea txertatu beharko liritekeela iruditzen zaigu.

Xedapenaren 5. artikulua trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren batzordeei buruzkoa da; honela dio bere 1. eta 2. azpiataletan:

5. artikulua. Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren batzordeak

1. Lege honen helburuak lortzeko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, lurralde historikoetako administrazioen eta toki administrazioen arteko barne koordinazioa Energia Jasangarritasuneko Batzordeak edo antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeek gauzatuko dute, Euskal Autonomia Erkidegoaren Jasangarritasun energetikoaren otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Lege honen xedarekin eta helburuekin koherentzian, legea indarrean jartzen den unean existitzen diren Jasangarritasun energetikoaren batzordeak aurrerantzean Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren batzordeak deituko dira.

Bertan aipatzen den *Euskal Autonomia Erkidegoaren Jasangarritasun energetikoaren otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 9. artikulura* jotzen badugu, ikus dezakegu bere 3. azpiatalean honela dioela:

9. artikulua.– Jasangarritasun energetikoaren batzordeak.

3.– Administrazio bakoitzak erabakiko du bere batzordeak zer kide eta funtzionamendu izango dituen, eta betiere emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Aldiz, hizkuntzaren aldagaia aipatu ere ez da egiten.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Jasangarritasun energetikoaren otsailaren 21eko 4/2019 Lege osoa aztertuta, hizkuntza aipamen bakarra bere 51. artikuluan aurkitu dezakegu; honela dio:

51. artikulua.– Jasangarritasun energetikoari buruzko dibulgazioa eta sentsibilizazioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, lege honetan jasotakoarekin bat, eta beren eskumenen eremuan, bermatu egingo dute jasangarritasun energetikoari buruzko informaziorako eskubidea; horretarako, jarraibide eta teknika batzuk ezagutaraziko dituzte, besteak beste, honako hauen bidez:

(...)

*Dibulgazioa, prestakuntza eta sentsibilizazioa beti egin beharko da **hizkuntza inklusiboa zainduta**, bai testuetan, bai irudietan, eta rol eta estereotipoak ezabatzea saiatuz.*

Ikus dezakegunez, euskararen sustapena eta herritarren hizkuntza eskubideen bermea eta zabalkundea ez dira aintzat hartzen.

Batzorde horietako kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak zaindu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:

Batzordeetako kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea.

Halaber, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik gomendagarria izango litzateke beste testu hau ere jasotzea:

Batzordeetako kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Batzordeak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.

Aurretik esan dugun bezala, Lege Aurreproiektuaren edukien artean hizkuntzen erabilera eskatzen duten hainbat gai jasotzen badira ere, hizkuntza ofizialei buruzko aipamenik ez da egiten.

Hori horrela, bi gai ezberdin hartu nahiko genituzke aintzat:

- a) Alde batetik, herritarren hizkuntza eskubideen bermea xedapenean ezarritakoari jarraituz egiten diren jarduketetan; hala nola: *partaidetza publiko prozesuak burutzerakoan, informazio zabalkundea, hezkuntza ekimenak, txostenak, irizpenak, proposamenak, komunikabideen eta sare sozialen bitarteko hedapen jarduerak promozionatzea, irakasleen prestakuntza, Euskal administrazio publikoek beraien zerbitzura dauden langile guztiei zuzendutako prestakuntza jarraitua,...*
- b) Bestalde, euskararen sustapena eta herritarren hizkuntza eskubideen zabalkundea; Euskal Sektore Publikoko erakunde guztien politika publikoen zehar-lerroa izanik, beren zeregin guztietan aintzat hartu beharrekoak dira, eta arlo guztietako arauetan islatu behar dira, hizkuntza normalizazioari buruzkoetatik haratago.

Lege Aurreproiektuaren 8. artikulua partaidetza publikoari buruzkoa da; honela dio bere 1. azpiatalean:

8. artikulua. Partaidetza publikoa.

1. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen alorrean, herritarren partaidetza sustatuko dute eta modu aktiboan bermatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta, bereziki, gazteen partaidetza.

Ikus dezakegunez, hemen ere genero berdintasuna aipatzen da baina hizkuntza eskubideak eta euskararen sustapena jaso gabe daude.

Euskararen sustapenak eta herritarren hizkuntza eskubideen bermea eta zabalkundeak beste hainbat artikulutan ezarritako arauetan izan beharko lukete isla; hala nola:

a) 12. artikuluan (Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren estrategiak);

b) 18. artikuluan (Mugikortasun jasangarria), bultzatuko diren azpiegituren baldintzen artean; huetan adibidez:

5. Karga eta erregai hornidurako askotariko azpiegiturak ezarriko dira eta modu progresiboan aplikatuko dira mugikortasunaren konektibitatea eta digitalizazioa.

7. Tren eta portu azpiegiturak garatzea sustatuko da ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko eta bidaiarien eta salgaien garraioaren deskarbonizazioa errazteko.

c) 41. artikuluan (Trantsizio energetikoari eta klima aldaketari buruzko ekimenen euskal erregistroa), bere 5. azpiatalean aipatutako onura publikoak eskuratzeko baldintzen artean:

4. Araubidez ezarriko dira erregistro horretan inskribatzeko baldintzak, funtzionamendua eta edukia. Bestalde, erregistro hori publikoa izango da ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, partaidetza publikorako eta justiziarako sarbiderako eskubideak arautzen dituen araudiko terminoekin bat, albo batera utzi gabe legeak datu pertsonalak babesteari buruz xedatzen duena.

5.- Erregistroko inskripzioa doakoa izango da eta inskribatutako jardueren titularrek administrazio onurak izango dituzte. Besteak beste hauek izan daitezke:

a) Ingurumen tasen eta zergen ordainketan salbuespenak, murrizketak, kenkariak edo hobariak aplikatzea.

b) Kontratu publikoetan adjudikazio irizpide gisa erabiltzea.

c) Aitorpen publikoak jasotzea.

d) Balorazio irizpide gisa erabiltzea laguntza eta dirulaguntza publikoen emakida prozesuetan.

d) 45. artikuluan (Trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren alorreko zerga sistema).

Bestalde, Lege Aurreproiektuaren Bosgarren Xedapen Osagarriaren bitartez IHOBE-Ingurumenaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sortzen da.

Bere 10. azpiatalean IHOBErenak izango diren zereginak zerrendatzen dira, tartean:

g. Esleituta dituzten alorretan, laguntza eta dirulaguntza publikoen bitartez sustapen politika programatzea eta egikaritzea.

IHOBEren zereginetan ere euskararen sustapenak eta herritarren hizkuntza eskubideen bermea eta zabalkundeak isla izan beharko luketela iruditzen zaigu; batez ere dirulaguntza publikoak emango dituela aintzat hartuz.

Lege Aurreproiektuaren Azken Bigarren Xedapena *Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeari* zenbait aldaketa egiteko baliatzen da.

Arreta deitzen digu ikusteak txertatu nahi diren aldaketei ez diegula lotura zuzenik aurkitzen Lege Aurreproiektuaren xedearekin.

Edonola ere, aldatu nahi diren artikuluen artean 4/1990 Legearen 3 quater artikulua dago; honela dio bere 1.e) azpiatalerako proposatzen den idazketak:

3 quater artikulua. Zehaztapenak eta dokumentazioa

1. Goi mailako interes publikoko proiektuek honako zehaztapenak zuzen jasotzen dituzten agiriak izango dituzte:

e) Proiektuaren eta bere egikaritzearen ingurumen inpaktuaren eta inpaktu sozioekonomikoaren deskribapena eta ezaugarri teknikoak.

Gure aztertze esparruari dagokionez, euskararen normalizazioaren ikuspegitik, gomendagarria ikusten dugu Legearen balizko aldaketa hau baliatzea txertatzeko baita Hizkuntza Eraginari buruzko Ebaluaketa ere; eta honen nondik norakoak zehazteko toki administrazioen eskumeneko proiektuetatik haratago.

Azkenik, txosten honen esparrutik kanpoko gaia izan arren, akats txiki bat antzeman dugu testuaren euskarazko zatian; 22.2 artikulua bigarren esaldia gaztelaniaz agertzen da, honela dio:

22.artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza, baso eta arrantza jarduerak

2. *Abeltzaintza ustiapenek plan bat izan beharko dute sortzen duten karbono aztarna gutxitzeko eta aztarna hutsa edo negatiboa izateko neurriak ezarri beharko dituzte. Las instalaciones afectadas, el contenido mínimo y plazo en el que deben estar redactados dichos planes serán fijados reglamentariamente.*

Laguntze aldera ohartarazten dizuegu, zuzendu ahal dezazuen egokia baderitzozue.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria